

DEMOKRAZIA, BURUJABETZA, INDEPENDENTZIA

Larunbatean Sorturen Konferentzia Politikoan erabaki genuen prozesu independentista herritarra martxan jartzea lehentasuna izango zela eta horretan ari gara dagoeneko. Asteazken zehar Bergarako kaleak kartekez josi ditugu: "Catalunya eta Euskal Herriak ez dira pasako", "Demokrazia, burujabetza eta Independentzia", estelada katalanak eta ikurrinekin.

Ez gara bakarrak izan: asteburuan zebrabideak estelada bihurtu dituzte Bergarako kaleetan; astelehenean 17tik 16 zinegotzik Cataluñako galdeketa babestu eta guk gurea egiteko dugun eskubidea aldarrikatu dute; ostegunean gehiengo sindikalak, ikasle mugimenduak eta Ernaik greba eta mobilizazioak deitu dituzte; larunbatean Gure Esku Dagok manifestazio nazionala deitu du Bilbon; eta igandean asko izango dira Cataluñara galdeketa babestera joango diren herritarrak. Aupa zuek! Hau horrela, Sortuk ez du ikusten aukerarik elite politikoaren arteko prozesu independentista bat martxan jartzeko, bai ordea prozesu independentista herritarra abiatzeko.

Gaur 42 urte betetzen dira ETAKo kide Txiki eta Otaegi zein FRAPeko 3 militante fusilatu zituztenetik. Urteurren bereziki honetan esan dezakegu 78an inposatu ziguten konstituzioak ez zuela frankismoarekin apurketarik ekarri eta hau agerian gelditzen ari da estatua Cataluñako prozesu demokratikoa indarrez geldiarazten ari den honetan. Indarrez atxilotu dituzte Cataluñako ordezkari politikoak, indarrez bereganatu dituzte Generalitatearen kontuak, indarrez saiatu dira kaleak husten, indarrez sartu dira Udaletxe eta komunikabideetara. Hitz batean Catalaunyak autonomia indargabetu dute eta bide batez baita Estatukoaren antolaketa autonomikoa ere. Ez dago tarteko biderik, ez dago Espainiarekin bilateralitateko aukerarik.

Ikusitakoak ikusita Eusko Alderdi Jeltazalea Francoren oinordekoak babesten ari da Madrilan. Noiz arte? Gu ez gara PNVko buruen zain geldituko. Euskal Herrian badago gehiengo soziala demokrazia eta askatasunerako prozesua martxan jartzeko orain eta hemen, baita PNVren oinarrietan ere. Bagoaz!

Aste hau erabakigarria izango da Catalunya eta Euskal Herriarentzat. Catalunyan gertatzen denak erabat baldintzatuko du Euskal Herriko prozesua. Horregatik hurrengo egunetan kalera irteteko deia egiten dizuegu bergarar guztiei. Bereziki larunbatean Bilbon Gure Esku Dagok antolatuta egingo den manifestaldi nazionalan parte hartzeko antolatu diren autobusetan izena eman. Gure aldetik, telazko esteladak bukatu ondoren, paperezkoak jarri ditugu Arrano tabernan nahi duenak hartu eta etxean jar ditzan.

Euskal Herria, Paisos Catalans, bi herri borroka bakarra, independentzia!

Bergarako Sortu